


ELKARRIZKETAREN BALIOA

HERRITARREN TOPAKETAK ELKARBIZITZAREN ALDE

**DEMONSTRATUKO
DUGU TOPAKETA
ETA ELKARRIZKETA
POSIBLE DIRELA!**



Urtarrilak 17, 24 eta 31
Mendibile Jauregia, Leioa


ZER PROPOSATU NAHI DIZUGU?

Beste pertsona batzuekin parte hartzea eta elkartzea espazio batean; bertan, indarkeriaz eta elkarbizitzaz hitz egin, entzun eta hausnartu ahal izango da Euskadiren iragan, orain eta etorkizunari dagokionez.

Sentsibilitate eta ideologia ezberdineko pertsonen arteko elkarrizketa, ulerkuntza eta topaketarako aukera demostratzea.

Elkarrizketa-tailer bateko protagonista izatea. Tailer hau hiru saiotan banatuta egongo da, bi ordu eta erdiko bakoitza. Topaketa bakoitza elkarrizketa inklusiboko metodologia baten bidez gauzatuko da, aniztasunaren eta elkarrekiko errespetuaren balioa guztiaren aurretik jarriz.

Parte-hartzaile bakoitzarekin bakarkako bilera bat egingo da aurretik, topaketak prestatzeko eta berauei buruzko edozein alderdi argitzeko.



ZERGATIK?

Indarkeria eta desadostasuneko urte luzeek arrastoa utzi dutelako guztiongan eta hitz egin beharra daukagulako iragan hori gainditzeko.

Kaleko herritarrok izan behar dugulako protagonista elkarbizitza sozialaren normalizazioan Euskadin.

Elkarrizketaren bidez soilik egin dezakegulako aurrera elkarbizitzaren eraikuntzan.

NOREKIN?

Leioako herritarrez osatutako talde txikia nahi dugu, **14 eta 18 lagun artean...**

...bere buruaren ordezkari direnak, ez beste inorenak.

...ideologia eta interes ezberdinak dituztenak.

...adin eta esperientzia ezberdinak dituztenak.

...elkarrizketaren balioan sinesten dutenak eta borondatez parte hartzen dutenak.

NOIZ eta NON?

2015eko urtarrilaren 17, 24 eta 31n,
10:30etik 13:00era.

Mendibile Jauregian.

IZEN-EMATEA eta INFORMAZIO GEHIAGO

info@geuz.es
675 715 661
<http://leioa.eu>

